

Literatura konparatuaren lehen agerpenak euskal literaturan: Lauaxetatik Pott Bandara

Primeras apariciones de la literatura comparada
en la literatura vasca: de Lauaxeta a la banda Pott

Premières apparitions de la littérature comparée
dans la littérature basque : de Lauaxeta au groupe
littéraire Pott

The first appearances of comparative literature
in Basque literature: from Lauaxeta to the Pott group

SARASOLA, Beñat

Euskal Herriko Unibertsitatea / Universidad del País Vasco (UPV/EHU)

Noiz jaso: 2016-08-25

Noiz onartua: 2017-07-17

Euskera. 2016, 61, 2. 485-513. Bilbo
ISSN 0210-1564

Literatura konparatua edo literaturaren ikuspegi konparatista XIX. mendean sortu bazen ere, euskal literaturan ez zen garatu ia mende bat beranduagora arte, tarteko salbuespenen bat kenduta. Artikulu honetan, literatura konparatuaren ezaugarritzetik abiatuta, haren lehen euskal saiakerak aztertuko dira, Lauaxetatik hasita Bernardo Atxagaren lehen urteetaraino: nola gauzatu ziren, ze eztabaidetan garatu, nola kokatzen diren literatura konparatuaren debate orokorretan.

Hitz gakoak: Literatura konparatua, Lauaxeta, Bernardo Atxaga, Pott Banda, Itzulpen-gintza.

La literatura comparada o la visión comparativa de la literatura surgió en el siglo XIX, pero no se desarrolló en la literatura vasca, salvo alguna rara excepción, hasta un siglo después. En este artículo, partiendo de las características de la literatura comparada, se estudiará los primeros intentos que se dieron en las letras vascas en este ámbito, comenzando por Lauaxeta y hasta los primeros años de Bernardo Atxaga: como se concretaron, en que contexto se desarrollaron, que posición ocupan en el debate general de la literatura comparada.

Palabra clave: Literatura comparada, Lauaxeta, Bernardo Atxaga, Banda Pott, Arte de la traducción.

La littérature comparée, ou vision comparative de la littérature, apparut au XIX^e siècle mais ne toucha la littérature basque, sauf rare exception, qu'un siècle plus tard. On étudiera dans cet article, à partir des caractéristiques de la littérature comparée, les premières tentatives faites dans ce domaine pour la littérature basque, en commençant par Lauaxeta jusqu'aux premiers pas dans la littérature de Bernardo Atxaga : comment elles se concrétisèrent, dans quel contexte elles se développèrent et quelle position elles occupent dans le débat général sur la littérature comparée.

Mots-clés : Littérature comparée, Lauaxeta, Bernardo Atxaga, Pott banda, Art de la traduction.

Comparative literature or the comparative view of literature emerged in the 19th century, but did not develop in Basque literature, with rare exceptions, until a century later. This paper sets out from the features of comparative literature to consider the first attempts in this respect in Basque writing, ranging from Lauaxeta to the earliest years of Bernardo Atxaga: how they were implemented, in what context they developed and what place they hold in the general debate on comparative literature.

Keywords: Comparative literature, Lauaxeta, Bernardo Atxaga, Pott Group, Art of translation.

Sarrera

Literatura konparatua diziplina XIX. mende amaieran eta XX. mende hasiera artean ezarri zen Europan; orduan argitaratu ziren lehenengo monografiak, lehenengo aldizkariak eta sortu ziren lehenengo unibertsitateko katedrak. Hitza bera, testuinguru frankofonoan –garai hartako kultur potentzia handiengan, alegia– sortu eta garatu zen¹, baina berehala zabaldu zen Europako beste nazioetara eta baita Estatu Batuetara² ere. Iberiar penintsulara, ordea, geroago iritsi zen; Pulido Tirado-ren arabera, adibidez, Espainian literatura konparatua ez zen garatu XX. mendeko 80 eta 90eko hamarkadak arte (2001, 11-20). Orduan sortu ziren, besteak beste, estreinako lizentziatura ikasketak eta katedrak.

Euskal Herrian ezin esan daiteke literatura konparatua askoz lehenago zabaldu zenik. Ikasketei dagokionez, Espainiako egoera baino are eskasagoa izan dela esan daiteke, ez baita egon ez literatura konparatuko lizentziatura edo gradurik ezta katedradunik ere. Boloniako erreformaz gero, «Literatura konparatua eta literatur ikasketak» masterra eskaintzen du EHUK, baina aztertu beharko litzateke, izenaz harago, hor lantzen den ikuspuntua konparatistikoa denetz. Literatur aldizkariari dagokienez, ostera, esan daiteke 80etan agertu zela estreinakoz ikuspegi konparatistikoa zuen literatur aldizkari bat. Artikulu honetan azalduko dugun gisara, *Pott* izan zen aldizkari hori.

1. Literatura konparatua

Literatura konparatua zer den eta ikuspegi konparatistiko hori zertan datzan zehaztea, alabaina, ez da lan sinplea. Esparruaren definitze zailtasunei buruz mintzatu izan dira ikerlari asko. Claudio Guillén-ek lausotasun hori azpimarratu zuen bidenabar: «Por Literatura Comparada –rótulo con-

¹ Sainte-Beuve jotzen da 1868 aldera behin-betiko «literatura konparatua» hitza ezarri zuen idazletzat (Vega, 1998)

² 1903an sortu zen *Journal of Comparative Literature*.

vencional y poco esclarecedor— suele entenderse cierta tendencia o rama de la investigación literaria que se ocupa del estudio sistemático de conjuntos supranacionales» (2005, 27). René Wellek-ek ere antzeko zerbait adierazi zuen urte batzuk lehenago: «The term ‘comparative’ literature is troublesome and doubtless, indeed, one of the reasons why this important mode of literary study has had less than the expected academic success» (1963, 46). Edonola ere, literatura konparatua literatura nazionalen esparru murriztaren gainditze moduan ulertu dela esan daiteke. Literatura nazionalak (Europakoek behinik behin) tradizio komun bat dutela edo haien artean sare konplexu bat osatzen dutelako ideian oinarritzen da. Haren aurrekari garbiena Goethe-k 1827an plazaratutako *Weltliteratur* kontzeptua jotzen da, zeina «munduko literatura» edo «literatura unibertsala» moduan itzuli ohi den. Kontzeptu hori azaltzerakoan zera dio Goethek.

Cada vez me doy más cuenta de que la poesía es un bien común de la humanidad que se manifiesta en todos los lugares y épocas y en cientos de personas (...) Hoy en día la literatura nacional ya no quiere decir gran cosa. Ha llegado la época de la literatura universal y cada cual debe poner algo de su parte para que se acelere su advenimiento. (Eckermann, 2005, 267)

Intuzio horri tiraka eta literatura nazionalak auzitan jarriz osatu zen, honenbestez, literatura konparatua, eta lausotasun arazoak gorabehera, Remak-ek 1961ean eman definizioa hartu ohi da definizio kanonikotzat.

La literatura comparada es el estudio de la literatura más allá de las fronteras de un país particular y el estudio de las relaciones entre la literatura y otras áreas del conocimiento o de opinión, como las artes (i.e., pintura, escultura, arquitectura, música, la filosofía, la historia), las ciencias sociales (i.e., política, economía, sociología), las ciencias naturales, la religión, etc. En resumen, es la comparación de una literatura con otra u otras y la comparación de la literatura con otros ámbitos de la expresión humana. (1998, 89)

Literatura konparatuak, beraz, ezinbestean, munduko literatura diferentetikiko sentsibilitatea eskatzen du, haiak aintzakotzat hartzea eta elkarren arteko dialektika lantzea. Horregatik dio Guillének literatura konparatua bata eta askotarikoaren (lo uno y lo diverso) arteko erlazioan zertzen dela. Hala, beste

bide bat suposatzen du literatura aztertzeiko ikuspegi tradizionalarekiko³, zeinak literatura tradizio literario bakoitzaren begi estuetatik ikertzen zuen. Literatura konparatua adiera murriztaileagoan ulertzen da gaur egun ere, literatur ikerketarako metodologia zehatz gisa, baina Goetheren *Weltliteratur*tik hasten den ildo luzeak metodologia bat baino zerbait sakonagoari egiten dio erreferentzia, literatura bera ulertzeko moduari besteak beste⁴. XX. mendeko 50eko hamarkada bukaeran garatutako «literatura konparatuaren krisia» delakoan, hain justu, literatura konparatuaren izaera egon zen auzitan, eta besteak beste arestian aipatu Wellek eta Remakek parte hartutako eztabaidak (Vega, Carbonell 1998: 69-133) argi uzten du auzi metodologiko batek baino erro sakonagoak dituen arazoa dugula literatura konparatuarena. Ez alferrik, Susan Bassnett-ek azaltzen du nola XX. mendeko 60ko hamarkada aldera teorikoen kexa nagusienetakoa zen hain justu literatura konparatuak ez zuela metodologia koherente zehatzik (1998: 92). Literatura konparatuak literaturaren sakoneko auziei eragiten diela ikusteko, aski da literatura konparatuak eta ikuspegi filologistak literatura definitzeko duten modu ezberdinari erreparatzea. Remaken definizioan ikusten denez, literatura konparatuak, literaturtasuna zentzu zabalagoan ulertzen du, hala beste arte diziplina batzuekin harremanetan, nola zenbait ezagutza esparrurekin elkarreraginean⁵. Gainera, literaturaren ondareari dagokionez ere, ezberdintasuna errotikakoa da, literatura konparatuak mundu osoko ondare literarioa hartzen baitu bere (idealki bederen), eta ez soilik tradizio edo esparru literario batekoa. Horregatik, literatura konparatua, ikerketa molde bat izatetik harago, ezagutza esparru edo diziplina oso bat dakegu. Arestian aipatu berri dugun ikuspegia legoke haren oinarrian, eta balio edo proiektu orokorragoekin egongo litzateke hertsiki loturik. Esate baterako, egungo zenbait ikerlarik Europaren ideia eta izaerarekin estuki loturik ikusten dute literatura konparatuaren problematika (Martí, 2005).

³ Ikuspegi filologista ere deitu izan zaio.

⁴ Literatura konparatuko unibertsitate-sail, katedra, lizentziatura eta masterrak egoteak, esaterako, metodologia bat baino gehiago den zerbaiten arrastoa jartzen gaitu, esate batera.

⁵ Ildo honetatik tiraka, literatura konparatutik sortutako zenbait ikuspegi «literatura» kontzeptua bera zalantzan jartzera edo ezandaraztera iritsi dira, eta nahiago dute «kultura konparatuaz» edo «ikasketa kultura konparatuaz» hitz egin, Steven Totosy de Zepetnek-ek «From Comparative Literature Today Toward Comparative Cultural Studies» artikuluan egin bezala.

Horregatik guztiagatik, artikulu honetan literatura konparatua⁶ ulertuko dugu diziplinaren oinarrian dagoen ikuspegi moduan, eta ez ikerketa-metodologia huts gisa. Ikuspegi hori «literatura nazionala»ren ideia hertsia gainditzen ahaleginduko litzateke eta literatura beste hausnarbide moderno batzuetatik pentsatzen; hala nola, filosofia, ideien historia, soziologia eta abar. Euskal literaturaren historiari erreparatuta, euskal kultura eta literaturaren garapen prekarioak etengabe bultzatu zuen literatura ikuspegi aber-tzaletik begiratzera, non literatura proiektu nazional handiago baten zati baino ez zen (paradigmatikoki Aitzolen egitasmoan ikusten denez). Beste-tik, eliza eta erlijio katolikoaren zamak ere, apenas utzi zuen zirrikiturik arestian aipatu hurbilpen modernoago batzuk egiteko, eta literatura beste zientzia eta pentsamendu esparru zein kanon garaikideekin lotzeko. Hala, XX. mendeko 30. hamarkada arte, nekeza da euskal literaturan ikuspegi konparatistikoaren zantzuekin topo egitea.

2. Literatura konparatua euskal literaturan

2.1. Aurrekariak

Euskal Herrian, literatura konparatutzat har litezkeen lehen lanak nahi-ko berandu agertzen zaizkigun arren, XX. mendeko lehen erdian topatzen ditugu argiki jada diziplinak planteatzen dituen zenbait problematika. Bere-ziki Euskal Pizkundean, literatura konparatuaren erdigunean kokatzen di-ren zenbait eztabaida garatu ziren, zeinetan Orixe eta Lauaxeta izan ziren protagonista nagusi.

Hala ere, aurretik, Luis Jauregi Jautarkol-en *Biozkadak* poema liburuaren argitaratzean jada ageri zaigu garaiko eztabaida estetikoaren erdigunean egongo den gaietako bat, eta literatura konparatuarekin erlazioa duena: herri poesia vs. kanpoko olerkigintza. Liburuaren hitzaurre egile Damaso Intza-ren aburuz, euskal poeta berriak kanpoko erreferenteei begira ari ziren, Euskal Herri-ko literatur tradizio herritarra bazter utziz. Hori, Intzaren ustez, beren poesia-

⁶ «Ikuspegi konparatistikoa» ere deituko diogu.

ren kaltetan zen, eta horren kontrapuntu, berriz, Jautarkolen poesiagintza: «Luis Jauregi poeta da, aita Intzaren ustez, euskal usaina duen herri-poesiaren eredu nagusia» (Iztueta, 2002, 50). Orixek, bestetik, liburuari egindako iruzkinean, kontrakoa leporatzen zion Jautarkoli, hots, kanpoko ereduak imitatu edo moldatu izana, alegia, eta ez zela Zaldubi-ren gorentasunera iristen, haren «euskal nerbioa» falta duelako (Iztueta, 2002, 52). Hau da, garaiko zenbait kritikarirengan errotua zegoen ideia komunaren arabera, bikaintasun poetikoa Euskal Herriko nortasuna islatuz lortzen da, eta ez kanpoko ereduak imitatuz edo moldatuz, nahiz eta printzipio horren balorazioan, Jautarkoli dago-kionez, Intza eta Orixe desados egon. Balio literarioa, haien ustez, euskal tradizio estetiko propioan oinarritzen zen.

Eztabaida hori bereziki agerian geratu zen 1931n, Lauaxetaren *Bide-barririk* poema liburu argitaratzearekin. Orduan, aurreko ideia horiek garatuz, argi eta garbi uzten du Orixek zein den bere literatur ideien sakonean dagoen teoria estetikoa. Klasizismoari jarraiki, haren arabera, balio estetikoak eternalak dira, eta ondorioz, modernitateak bultzatzen dituen arau tradizionalen haustura bazterten du.

Orixerentzat garrantzitsuena ez da ideietan edo hizkuntzaren erabileran modernoak izatea; aitzitik, pentsamenduaren eta afektuaren arteko ezkontza harmoniatsua lortzean datza literaturaren handitasuna. Horixe da, hain zuzen, literatura modernoari, frantsesari eta areago oraindik espainolari, falta zaiona: harmonia, neurria, batasuna. Literatura modernoan pentsamendua eta bihotza dibortziatuta dabilta eta horregatik dituzu hain ahulak, hain kaskarrak, hain hutsalak oraingo hainbat poesia. Hori horrela, eredu poetikoaren bila abiatzeko orduan, hobe da beste aro eta beste literatura batzuk arakatzea. (Iztueta, 2002, 59)

Lauaxetaren erreferentzia garrantzitsuenetakoa Frantziako poesia sinbolista izan zen, eta hori arazotzat ikusten zuten hala Orixek nola Aitzolek⁷. Modernitatearen kontrako jarrera hori, bereziki markatua da Orixerengan 1932ko «Maitale kutuna» artikuluan, zeinak Lauaxeta beraren erantzuna

⁷ Aitzolek «Poesia purua» deitzen dio eta Orixek «Poesia kontzeptista» poesia molde horri (Iztueta, 2012).

ekarriko duen «Erantzuna» (1982) izeneko idazkian hain zuzen ere—. Eragin frantsesari dagokionez, Kortazarrek azaltzen duenez, ez dago askorik eztabaidatzeko, Lauaxetak berak onartu baitzuen eragin hori (Kortazar, 1986, 29). Orixerengan moda kontua zena, ordea, Lauaxetarentzat klasiko garaikide zen, eta horretan zetzan poesia sinbolistari buruzko ezbaia. Orixerentzat nekez izan zitekeen autore garaikide bat klasiko; Lauaxetarentzat, aitzitik, klasikotzat jo behar ziren poeta garaikideak egon baziren. Artikulu gurutzaketa horretan, bada, poesia klasikoa zertan datzan eztabaidatu zuten funtsean.

Orixek klasikotasunaren ikuspegi zehatza du, batez ere Biblia (Dabid), klasiko greko-latindarrak (Sofocles, Virgilio, Platon) edo, gehienez ere Berpizkundeko autoreak (Luis Leongoa) jotzen baititu klasikotzat⁸. Lauaxetarentzat autore moderno eta garaikideak ere klasiko izan litezke, adibidez Frantziako poeta sinbolistak beraiek eta, bereziki, Paul Valéry. «Valery jaunari Nobel saria emongo deustoe⁹. Orixek gura leunken moetakoa dogu Valery? Iñondik bere ez! Euzkadin jaio balitz, Orixeren zigorkadea lepoan eroango eban, baiña Francen bere kritikoak sortuko ziran klasikoetan aziak ta Valery jaunari saria emoten deustoe» (Lauaxeta, 1982, 135). Orixek eta Lauaxetaren arteko eztabaida hori aztertzerakoan, ez dira bat etorri beren kritiko nagusiak, Paulo Iztueta eta Jon Kortazar, hurrenez hurren.

Kortazarrek dio biek klasizismoa modu berean definitzen dutela, forma eta edukiaren arteko oreka moduan, *sophrosyne* moduan, alegia: «Esa armonía entre fondo y forma, fórmula que enunciada así no dice demasiado es lo que los dos escritores proponen» (Kortazar, 1986, 30). Diferentzia, baina, hemen legoke: oreka hori zertan datzan edo nola gauzaten den. Orixek oreka hori modu prezeptiboan ikusten du, lege iraunkor moduan, klasizista on gisara: «Hay leyes filosóficas eternas que están asentadas sobre el buen sentido, la disciplina, la armonía, la medida, y sobre todo, la unidad

⁸ Iztuetak dioen bezala (2002, 66) Orixek onartu zuen inon klasiko garaikide izateko aukera teorikoa, baina egiazki, praktikan, antzinako autoreen adibideak baino ez zituen ematen, eta poesia sinbolista gutxiesten.

⁹ Azkenean Valeryk ez zuen Nobel saririk jaso.

artística, que hoy tanto se descuida» (Orixe, 350). Lauaxetaren klasiko kontzeptua dinamikoagoa da Kortazarren ustez.

Para Lauaxeta el concepto clásico depende del tiempo, es diacrónico. Con el tiempo no sólo cambia la forma de entender el concepto «clásico» sino que evoluciona también la forma de «componer» la clasicidad, la literatura clásica. Para Lauaxeta, clásico es aquél que exprese mejor el mundo de su tiempo; cada época tiene su clásico y su forma de hacer clasicismo; ellos, Lauaxeta y Orixe debían, según el primero, usar en su poesía de las técnicas del cine y la fotografía, por ejemplo. El concepto de «lo clásico» es evolutivo, no inmutable. (Kortazar, 1986, 30)

Iztueta bat dator Kortazarrekin bi autoreek klasiko kontzeptua *sophrosyne* gisara ulertzen dutelako iritzian, eta baita bien arteko diferentzia printzipio horren aplikazioan dagoelakoan ere. Lauaxetaren kontzeptua, Orixere-na baino zabal eta eklektikoagoa (Iztueta, 2002, 68) da, eta horretan oinarritzen da desadostasuna. Iztuetaren ustez, ñabardura kontua da, ez dago Kortazarrek azaltzen duen bezainbateko alderik.

Hemendik zer ondorioztatu behar den? Klasikotasunaren eta modernotasunaren arteko eztabaidan Orixek lehen aukera eta Lauaxetak bigarrena ordezkatzeko dutela? Lauaxetak, Orixek ez bezala, euskal literatura aurreiritzi klasizistatik askatzen duela? Hala pentsatzen duela dirudi Jon Kortazarrek dioenean Lauaxetak poetika berri bati ateak irekitzen dizkiola, «klasiko» kontzeptuari objektibitatea eta normatibitatea ukatuz gero, poesiaren funtsa edertasun eta egiaren baitan ezartzen duenean. Nik ez dut uste Orixeren eta Lauaxetaren artean halako diferentziarik dagoenik, ez bederen klasikotasunaren eta modernotasunaren artean egon daitekeen adinakorik. (Iztueta, 2002, 71)

Egiazki, Iztueta eta Kortazar ez daude lehenengoak dioen bezain desados, biek ezartzen baitute debatea modu antzekoan, klasikotasunaren inguruan. Kortazarrek Lauaxetaren klasiko kontzeptuan zer dagoen ondo adierazten du, baina ez du garatzen kontzeptio horrek zer suposatzen duen; ez du garatzen, Iztuetak ondo intuizten duen bezala (nahiz eta desados egon), kontzeptio hori ez dela ezbaia terminologiko bat soilik; aldiz, hondoan Orixeren

eta Lauaxetaren poetiken arteko errotiko ezberdintasun bat dagoela dio, estetika klasiko eta estetika moderno baten arteko aldea, hain zuzen ere.

Garaiko euskal literaturako ideologia kritiko dominante klasikozelean, ziur aski, Lauaxetak ezin izan zuen esplizituki modernoago azaldu, baina bere argudiatzean, funtsean, estetika moderno bat topatzen ahal dugu. Kontua da estetika hori klasizismoaren inguruko eztabaida batean mozorrotzen duela Lauaxetak, hau da, estetika moderno bat agerian defendatu beharrean, Orixeren terminoetan eztabaidatzen saiatzen dela, eta kontuak debate terminologiko baten itxura hartzen duela (Iztuetak uste duen moduan). Alde horretatik, Lauaxetak ohi baino gehiago luzatzen du klasikotasunaren kontzeptua, hain justu berak benetan maite dituen autore modernoak bertan kabiarazteko, eta garai klasikotik (ondare greko-latindarretik) harago klasikoak egon litezkeela aldarrikatzen du. Diferentzia hori dirudien baino muntakoagoa da, modernitateak ezartzen duen ondare klasikoarekiko askapena suposatzen baitu. Adibideak ematerakoan erakusten du Lauaxetak poesia modernoarekiko bere jaidura hori modu agerikoenean. «Virgili begiko jat, baiña Goethe begikoago. Teokrito ez da neure lan etsaia, Maragall adiskideago. Horatius zeuretzat emongo deusut Keats, Novalis edo beste bategaitik» (Lauaxeta, 1982, 135). Horiei beste zenbait autore erromantiko eta modernoren aipamenak gehitu behar zaizkie, esaterako, Giacomo Leopardi, Alphonse de Lamartine, Hölderlin, Heinrich Heine, Charles Baudelaire. Bistan denez, segida horrek poesia erromantikotik poesia sinbolistarako bidea erakusten digu, hots, poesia modernoaren bidea (Poe, 2010).

Azpimarratzekoa da, esate baterako, Novalisen aipamena, zeina klasizismoaren lehen kritiko garrantzitsuenetakoa dugun. Jenako Erromantizismo-kide, Erromantizismo apurtzaile eta iraultzaileenaren adibidetzat jo daiteke, zeinak bidea ireki zuen modernitatera. Bereziki, ordura arte erdigunean zegoen ondare klasikoarekiko harremana irauli zuen Erromantizismoak, eta zehazki, Novalis berak. Erromantizismoaren hausturatik aurrera, ondare klasikoaren berreskurapenak bazterrekoak bilakatuko dira eta berritasunak hartuko du artearen erdigunea (Llovet, 2005). Izan ere, Erromantizismoaren etorrera arte, ondare klasikoa zen neurri estetiko funtsezkoa, non poe-

tikek ezartzen zuten jarraitu beharreko araua¹⁰. Erromantizismotik aurrera, bada, eta bereziki modernitatean, aurrez ezarritako arau estetiko edo poetika klasiko horiekin hautsiko da, neurri estetiko egonkor ororekin (Adorno, 2004). Sormenerako iturria kanpoko poetika klasiko batean egotetik indibiduoaren barrenera egotera igarotzen da, eta, ondorioz, askoz ere dinamikoago eta askeago bihurtzen. Hala, indibiduoaren sormenerako abilezia hori adierazteko, *witz* terminoa bihurtuko da erromantizismoko kontzeptu nagusienetakoa, euskaraz «grazia» moduan itzul daitekeena¹¹. Biraketa hori ongi aski adierazi zuen Lauaxetak aipatutako Novalisek berak; iraganean baino orainaldian eta indibiduoarengan dago eternitatea haren aburuz. «En ningún otro lugar, sino en nosotros, se encuentra la eternidad con sus mundos, el pasado y el porvenir» (Novalis, 1987, 49). Historiaren eta klasikoaren zama kentzeari eta indibidualtasunarekin kontrajartzeari dagokionez, aski esplizitua izan zen halaber: «El individuo sólo interesa, por ello nada de lo clásico es individual (51)». Izan ere, Novalisek zirriborratzen duen arte teoriak modernitatea iragartzen du, bere erdigunean prezeptiba klasiko bat ipini beharrean indibiduo eta munduaren arteko lotura mekanismo bat jartzen baitu: «L'art de estranyar¹² d'une manera *agradable*, de fer un objet *estrany* i tot i això conegut i atractiu, això és la poètica romàntica» (Novalis, 1998, 187).

Ez da ahaztu behar, halaber, eztabaida hori testuinguru jakin baten abarogan garatu zela, zehazki Aitzolek gidaturiko pizkunde nazionalaren egitasmoaren estalpean. Lourdes Otaegik aztertu duenez, Aitzolek «herriarengan eragina izango duen literatura» hobesten zuen, eragin hori azkarra izango zena gainera, eta horretarako poesia ikusten zuen genero behinena (Otaegi 1996: 503). Hala, ezagun denez, Frédéric Mistral-ek proventzeraz idatzitako

¹⁰ Bi poetika klasiko ezagun dira, esate batera, Horacio-ren *Ars Poetica*, K.a lehen mendekoa, eta neoklasizismoko *L'art poétique*, Nicolas Boileau-rena.

¹¹ Terminoa aurretik sortua bada ere, batez ere lehen erromantizismo alemaniarrean hitz giltzarria izan zen. Ingelesez «wit», espainieraz «ingenio» eta frantsesez «esprit» hitzekin itzuli izan da.

¹² Ez da aipatu gabe utzi behar Novalisen arrotz egite hori (*befremden*) XX. mendean Viktor Shklovski formalista errusiarrak, literatur teoria modernoaren gurasoetako batek, proposatutako urruntze kontzeptuaren oso kideko dela.

Mireio eta finlandierazko Elias Lönnrot-en Kaleva zituen eredutzat, eta horien kide litzatekeen poema nazionala egiteko enkargua egin zion Orixeri. *Euskaldunak* dugu enkargu horren emaitza. Testuinguru horretan, bada, Aitzolek eta Orixek bat egiten dute poesia molde nazional baten beharriaz, zeina kontzientzia nazionala piztera deituko duen.

Modernitateari buruzko eztabaida, eta zehazki, Lauaxetaren posizioa, literatura konparatuaren aurrekaritzat har litekeela ulertzeko, modernitatearen eta literatura konparatuaren arteko harremanaz jabetu beharra dago. Ez alferrik, ikuspegi historiko batetik, hala modernitate literarioa nola literatura konparatua garai berean garatzen dira, XIX. mendeko bigarren erditik aurrera. Ez da kasualitatea literatura konparatuaren lehen kritikoetako bat, Sainte-Beuve, eta lehen idazle modernoak (Baudelaire¹³ eta Flaubert, esaterako) garaikideak izatea. Izan ere, ikusi dugun moduan, modernitateak, besteak beste, kanon klasizistarekin haustea suposatzen du, eta ondorioz, kanonaren ideia zurruna malgutzea. Kanonaren irekitze horrek eragiten du tradizio greko-latindarretik harago dauden testu eta autoreen aintzatzea, hots, literatura nazional diferenteetako¹⁴ erreferentzia berriak balioestea. Kanon klasiko itxi bakarra ez dagoela eta «berritasun» kontzeptu modernoak kanon berrietarako aukerak irekitzen dituela ohartzea ezinbestekoa da literatura konparatuaren agerpenerako. Kanon aberastasun hori gabe ezinezkoa bailitzateke ikasketa konparatistikorik; kanon klasiko greko-latindarraz harago beste kanon nazionalik egon gabe, ezinezkoa litzateke literatura konparatua. Bada, kanonaren inguruko eztabaida hori da azaleratzen dena hain justu Orixe eta Lauaxetaren artean, ez Iztueta ezta Kortazarrek ere antzematen duten diferentzia errotikoa.

Izan ere, Lauaxetak beste literatur tradizio batzuetako erreferentziak aldarrikatzen ditu *de facto* debatean: idazle frantziar sinbolistak oroz gain, baina baita beste zenbait alemaniar, ingeles, italiar, kataluniar ere. Orixeren kanonaren aurrean, funtsean latindarra eta espainiarra dena, Lauaxetarena

¹³ Horrek ez du esan nahi Sainte-Beuvek eta Baudelairek ikuspegi estetiko bera zutenik. Ikus M. Proust, *Contre Sainte-Beuve*.

¹⁴ Egiazki, kritika postkolonialak esango du gerora ez direla tradizio horiek hain diferenteak, funtsean Europako literaturak hartzen baitira kontuan. Ikus, E. Said.

dezente aberatsagoa da, eta hala, ikuspegi konparatistikorako aukera irekitzen du. Bi tradizio ezberdin horien aldarrikapenaren sakonean azalean dirudien baino desadostasun funtsezkoagoa dago, arestian aipatu legez. Hori bai, egiazki, ezin esan liteke Lauaxetak literatura konparatua egin zuenik, baina dudarik gabe, hark defenditutako ideia estetiko modernoek, nahiko lotsati eta herabeak izanagatik, literatura konparaturako ildoak markatu zuten, nahiz eta, jakina, Lauaxeta bera horren kontziente ez izan.

2.2. Modernitatea eta literatura konparatua

Aurretik argudiatutakoaren ildotik, modernitatearen agerpena arrasto egokia izan daiteke literatura konparatuaren presentzia identifikatzeko. Euskal literaturaren kasuan ere halaxe gertatzen dela esan daiteke, euskal literatura modernoaren agerpena eta lehen aldarrikapen konparatistikoak garaikideak direlako.

Euskal literatura modernoaren jaiotzaren inguruan dezente idatzi izan da (Sarasola, 1975; Apalategi, 2015), batez ere nobelagintzari dagokionean. Edonola ere, euskal literaturaren historia gehienetan, zaharxeagoetan (Sarasola, 1971) zein berriagoetan (Urkizu, 2000; Lopez Gaseni, 2002; Aldekoa, 2004; Olaziregi, 2012), gutxi-asko 60-70. hamarkaden bueltan kokatzen dute euskal literaturaren aro modernoaren hasiera bete-betekoa. Modernitate horren baitan estreinako urratsa izan ez arren, hastapeneko garrantzizkoenetakoa izan zen Atxagaren lan literario zein teorikoa –azken hori aski ezezagunagoa–. Lan teoriko horri jarriko diogu arreta, zeina Pott Banda sortu aurretik hasi zen baina bereziki *Pott* aldizkarian gorpuztu zen, eta literatura konparatuaren lehen aldarrikapen argizatzen jo daitekeen.

2.2.1. Bernardo Atxaga

Bernardo Atxaga izan zen *Pott* aldizkarian ikuspegi teorikotik artikulatu eta sakonena idatzi zituen kidea. Egiazki, kulturari eta literaturari buruzko artikulua elaboratu eta polemikoak idazteko joera aurretik zetorkion. Artikulu horietako gai garrantzitsuenetako bat zen hain justu Euskal

Herriaren eta munduko herrialde eta kulturen arteko harremana, eta jarrera ikusiko dugun eran, hor agertuko da estreinakoz euskal literaturan ikuspegi konparatistikoa.

Artikulu horien arteko lehenengoa *Anaitasuna* aldizkarian argitaratu zuen 1974ko hastapenetan, bitan zatituta 268 eta 269 zenbakietan. «Euskal Theatro Berriaren bila» izenburua jarri zion eta NHI (Nazional Herriko Iraultzailea) antzerki bat sortzeko argibideak ematen zituen. Izan ere, gaur egungo ikuspuntutik arraroa irudi dakigukeen arren, Atxaga bertsolaritzari eta antzerkiari buruzko artikulekin hasi zen argitaratzen prentsan. Antzerkiari dagokionez, kontuan izan behar da artikulu hori argitara eman baino bi urte lehenago publikatu zuela *Borobila eta puntua* lana Gabriel Arestik apailatutako *Euskal Literatura 72* liburu kolektiboan¹⁵. «Euskal Theatro Berriaren bila» artikuluan nabaria denez, antzerkiarekiko zaletasun handia zuen garai hartan Atxagak, eta neurri batean, antzerkia izan zen euskal literaturarako Atxagaren sarbidea.

Harentzat, NHI antzerkia bi habetan oinarritzen zen.

Gauzak honela, NHI-k bi zutabetan oinharriturik eraikiko du bere etxea, hots, bere teatro lengoia:

- munduan eman diren teoriak aztertuz, konprenituz, eta, kome-nigarri iruditzen bada, gure kasurako aplikatuz.
- euskal kulturaren erantzunak (gai honi buruz, noski) aztertuz eta erabiliz. (Atxaga, 1974)

Atxagarentzat, euskal kulturaren berritzeak ezinbestean egon behar zuen mundu mailan egiten ziren ekarpenei loturik. Antzerkiaren berritzearen bi zutabeetako batek horri egiten zion erreferentzia hain justu, eta hori zen euskal antzerkiaren atzerapenaren bi kausa nagusietako bat: «Bada, guri iruditzen zaigunez, Euskal Herrian orain arte eman den teatroak, alde ba-tetik, ez die batere jaramonik egin Europa eta mundu osoan nagusitu diren teatro teoria horiei (kalitatea lortzeko posibilitateak urrituz, jakina)»

¹⁵ Lan horretaz gain *Oskar* ipuina ere argitaratu zuen liburu berean. Horiexek dira Atxagak inoiz publikatutako lehenengo literatur lanak.

(Atxaga, 1974). Horrek ez du esan nahi, haatik, euskal antzerkiak kanpoaren imitazio hutsa izan behar duenik, beste zutabeak barrura begiratzen baitio, euskal kulturaren tradizioa¹⁶. Munduko teoriari begiratzeko aldarri hori, gainera, ez zuen plano teoriko hutsean uzten. Artikuluan zehar zenbait erreferentzia eskaintzen zituen. Nabarmenenak, Peter Brooks eta Bertold Brecht, baina horiekin batera, baita beste zenbait antzerkigile moderno edo garaikide ere: Alfonso Sastre¹⁷, Jean Genet, Konstantin Stanislavsky, Roy Hart, Jerzy Grotowski, Antonin Artaud eta Japoniako No antzerkia.

Atxaga ikuspegi konparatistikoa ezarian lantzen joan zela ohartzen gara artikulu hori geroagoko beste batzuekin erkatzen badugu. Munduko literatura eta teoriak sormenerako zutabe bat izan arren, itzulpenari ez zion oraindik (geroago ez bezala) garrantzi handirik ematen. Euskal antzerkiko garaiko obra gehienak «metafisiko eta eskas»tzat zituen, eta gabezia horri aurre egiteko proposatzen zen bide bakarra Espainiako belaunaldi errealistaren (Sastre, Lauro Olmorena) lanak itzultzea zen. Atxaga, baina, oso adierazkorra zen puntu horretan: «Guretzat, itzulpenak bigarren mailako soluzioak dira» (Atxaga, 1974). Jakina, horrek ez du esan nahi Atxagak itzulpenak erabat gutxiesten zituenik, baina agerikoa denez, orduan itzulpengintza ez zitzaion iruditzen euskal literaturako hutsuneak betetzeko soluzio egokia.

2.2.2. *Pott eta literatura konparatua*

Atxagari lehenagotik bazetorkion ere munduko literaturaren eta euskal literaturaren arteko harremanen inguruko kezka, Pott izan zen kezka horri garai hartan emandako erantzun argiena. Proiektuak hasieratik bi

¹⁶ Interesgarria da ikustea Atxagaren tradizioaren ikuspegia, haatik, dinamikoa dela, «bizia» bere hitzetan: «Tradizio biziduna, guretzat, historian zehar funtzionalitate desberdinak eduki ditzakeen hura da» (Atxaga, 1974). Hau da, euskal kulturak barnera begiratu behar badu ere, ez du modu estatiko klasikoan begiratu behar, baizik eta euskal tradizioa berrirakurritik eta berrerrabiliz.

¹⁷ Aldizkari berean argitaratutako hiru urte ondorengo antzerki kritika batean, Sastreren *Miguel Servet* obraren *El Buho* kolektiboaren moldaketaren kritika egin zuen. Obra originala goraiatzat bazuen ere, moldaketarekin oso kritikoa izan zen.

helburu nagusi izan zituen: batetik, zenbait literatur lan (poemak, ipuinak...) eta artikuluko argitaratzea, eta bestetik, euskal literaturaren ikuspegia zabaltzea, bereziki munduko literaturaren barnean kokatuz. Bigarren helburu horri lotuta ageri zaigu literatura konparatuaren ikuspegia. Bide batez, aipagarria da orobat Lauaxetak lekua izan zuela aldizkarian. Azkeneko alean, *Pott Tropikalan*, Lauaxetari buruzko bi artikuluko argitaratu zituzten, Jon Kortazarrek idatziak; bata, poetak Alea taldearekin¹⁸ izan zuen harremanari buruzkoa, eta bestea, *Langile eraildu bati* poemari buruzkoa.

Potten ikuspegi ireki eta konparatista horretan garrantzitsua izan zen Joxemari Iturralde, Potten sustatzaile nagusienetakoa, nahiz eta aldizkariari egin zion ekarpena ez den aski aintzat hartua izan. Izan ere, Atxagarekin batera, bera izan zen aldizkariaren sortze lanetan, ekoizpen eta enparauetan gehien inplikatu zen kidea (Sarasola, 2015). Iturralde izan zen, bestetik, aldizkarian munduko literaturari eskaini zieten tartetan ere lan gehienetarikoa egin zuena. *Pott Tropikala* hartzea besterik ez dugu, non Pragako literaturari buruzko atal monografikoko zazpi testuetatik gutxienez hiru bereak diren; ipuin bat, itzulpen bat (Johannes Urzidil-en kritika lan bat) eta olerki bat (Iturraldek inoiz argitaratutako bakarrenetakoa). *Pott Tropikala*-ko Pragari eskainitako atal monografikoaz gain, beste zenbait ondu zituzten beste aleetan. *Pott bandaren blaga*-n (bigarren zenbakian) eta *Pott 3n* poloniar literatura izan zuten ardatz, baina beste leku batzuetakoak ere ekarri zituzten: literatura mexikarra (Juan Jose Arreola), literatura beltza (Ross McDonald), literatura irlandarra (poesia klasikoa eta James Joyce), literatura galegoa (Xose Luis Mendez Ferrin) eta literatura katalana (Pere Gimferrer). T.S. Eliot-en poesia izan zuten hizpide *Pott bandaren braga*-n (lau garren zenbakian)n, zeinetik gerora liburu bat aterako zen, *T.S. Eliot euskaraz*, Hordago argitaletxeak argitaratua 1983an. Gabriel Aresti, Joxemari Iturralde, Jon Juaristi eta Joseba Sarrionandiaren itzulpenez osatu zuten liburua, eta hastapenetan, Pott bandak sortu nahi zuen argitaletxean publikatzeko asmoa zuten. Horretaz gain, aurreko aletik zetorren poesia

¹⁸ Asociación Libre de Ensayos Artísticos izeneko idazle eta intelektuaren taldea, artearekin eta literaturarekin erlazioz atutako hainbat jardunaldi antolatu zituzten.

irlandar klasikoaren ildotik ekarritako beste poema baten itzulpena ere argitaratu zuten *Pott bandaren bragan*: egile anonimoa duen *Agur Irlanda*. Azkenik, *Pott bandaren praka*-n (bosgarren zenbakian) ez zuten munduko literaturatik ezer berezik ekarri, ezpada Euskal Herriko erdal literaturatik (batez ere Nafarroatik) eskuratutako zenbait idazleren lanak: Pablo Antoñana, Javier Aguirre, Ramon Irigoyen eta Miguel Sanchez Ostiz-enak. Monografiko horietaz gain, aipagarriak dira ale guztiak zeharkatzen dituzten Hego Amerikako literaturaren erreferentziak, eta horien artean, oroz gain, Jorge Luis Borges¹⁹.

Zenbaki monografiko horiek itzulpenek eta artikulu kritikoek osatzen zituzten gehienbat. Itzulpenak, beraz, giltzarri izan ziren, eta hori dela eta sortu zen, esaterako, Elioten poesia euskaraz edukitzeko egitasmo handiagoa. Kontuan izan behar da garaian apenas itzultzen zela ezer munduko literaturatik euskarara, are gutxiago literatura garaikidetik. 70. hamarkadan Kriselu eta Lur argitaletxeek zenbait liburu interesgarri itzuli zituzten: Kafkaren *Itxuraldaketa* Xabier Kintanak itzulia, Aldous Huxley-ren *Bai mundu berria* Xabier Amurizak euskaratua, Nazim Hikmet-en *Lau gartzelak* Arestik itzulia, Voltaire-ren *Kandiko* Ibon Sarasolaren eskutik, Alfonso Castelao-ren *Kristalezko begia: eskeleto baten oroimenak* Koldo Izagirrek itzulia, Mark Twain-en *Tom Sawyerren abenturak* eta Jack London-en *Oihanaren deia* biak Gillermo Etxeberriak euskaratua eta Lewis Carrol-en *Alizia herrialde harrigarrian* Cruz Mujika-k ekarria. Justu orduantxe hasi zen Elkar argitaletxe sortu berria zenbait lan argitaratzen, baina, gainontzean, aldizkarietan baizik ez ziren argitaratzen itzulpen solteak²⁰. Horiei gehitu zitzaie, bada, Pott, baina berau izaki literatur aldizkari bakarra. Bestalde itzulgaiei zegokienez, alde batetik, aire moderno eta garaikideago bat ekarri zuten besteekin alderatuz, eta bestetik, kanonaren ertzei ere egin zieten jaramon (Poloniako literatura, poesia gaeliko klasikoa, hegoamerikar literatura...).

¹⁹ Lehenago aipatutako Arreolaz gain, Gabriel Garcia Marquez.

²⁰ Horien artean nabarmendu beharra dago Sabin Muniategiren lana, zeinak batez ere *Oleri*, *Karmel*, *Goiz-argi* eta *Esparavel* aldizkarietan poesia itzulpen mordoak argitaratu zuen.

2.2.2.1. Autonomia

Literatur autonomiaren gaia Atxagaren garaiko gai nagusienetakoa zen, nagusia ez bada. Jada *Anaitasuna* eta *Hitz* aldizkarietako artikulua banatan kartsuki polemizatu zuen gaiaren inguruan Joxe Azurmendirekin. Hala ere, literatur autonomiaren defentsan Atxagaren hastapeneko testu garrantzitsuena Koldo Izagirrekin batera *Panpina ustelan* argitaratu zuena izan zen: «Ez dezagula konposturarik gal, halere». Testu hartan esaldi aski esanguratsu bat zegoen, autonomiaren defentsa esplizitua egiten zuena: «Zeren literaturak bai bait du bere dinamika propioa ta berezia» (Atxaga, Izagirre, 1975). Testu horixe da euskal literaturako autonomiaren estreinako aldarrikapen argia hainbat ikertzailereren arabera (Torrealdai, 1997; Apalategi, 2000).

70. hamarkada hartan ugariak ziren, besteak beste, alderdi eta antolakunde politikoaren argitalpenak, eta literatur aldizkariak, hain justu, haiekiko aparte osatu ziren, haiekiko independentzia lortu nahian. Garai ultrapolitizatu haietan, literaturaren autonomia aldarrikatzea ekintza politikoa zen dudarik gabe (Sarasola, 2015).

Potten, hala, ildo berean jarraitu zuen Atxagak, batez ere lehenengo aleetan argitaratu zituen lan kritiko aski landuetan. Horietan proposatu zuen Euskadi Ofiziala terminoa, euskal kulturaren erdigunean zeuden pertsona, gune eta diskurtsoak kritikatzeko. Atxagak eta bere kideek Euskadi Ofizial horretatik at kokatzen zuten beren burua, euskal kulturaren periferian. Hain justu Euskadi Ofizialak literaturaren autonomia errespetatzen ez zuela kritikatzeko zuen Atxagak *Pott* aldizkariaren lehenengo zenbakian. Literatur kritika autonomo baten beharrak kezkatzen zuen: «Gure kritika, kritika arbitrario bat da, mafia (eta ez magia) arazo bat. Balore literarioak bost axola, ideologia edo arrazoi taktikoak edo elkarrekin egindako bazkariko autobonboak» (Atxaga, 1978a). Hori arazo orokorrago baten sintoma baizik ez zen harentzat, izan ere, euskal literatura osoa zegoen literaturaz kanpoko motiboek gidatuta. «Literatura moeta asko hedatu bada, arrazoi extraliterario —eta gainera, boterea dagoela tartetik jakina— bategatik izan da (...) Literatu pila bat, txar askoak, erori zaizkigu —izurrite baten moduan— alderdi politiko konkretu bati apartenitzen zutelako, edo ziotelako» (Atxaga, 1978a).

Literatur autonomiaren aferak badu zerikusirik literatura konparatuaren agerpenarekin. Historikoki, artearen autonomiaren debatea eta literatura konparatuari buruzkoa garai bertsuan garatu ziren, XIX. mendean. Izan ere, batetik, Bordieuk erakutsi duenez, literaturaren autonomiaren kontzientzia ezinbestekoa da literatur esparruen osaeran. Zentzu horretan, Flaubert eta Baudelaireren²¹ autonomiaren aldeko jarrera ezinbestekoa izan zen Frantziako literatur esparrua egituratzeko. Kontua da literatur esparru nazionalak osatzeak egin zuela posible literatura konparatuaren agerpena; haiek gabe, literatura ezberdinen arteko ikerketak ezinezko ziratekeen eta. Hala, literaturaren autonomiaren aldarria funtsezkoa izan zen heinean euskal literaturaren esparruaren osaeran, literatura konparatuaren agerpenerako elementu aipagarri bilakatzen da.

2.2.2.2. Itzulpengintza

Esan dugu dagoeneko *Pott* aldizkariak jaidura berezia izan zuela kanpoko literatura Euskal Herrira ekartzeko, besteak beste itzulpenen bidez. Alderdi praktiko horretatik ez ezik, teorikoki ere itzulpengintzaren defentsa egin zuen Atxagak *Potten* hirugarren zenbakian, akaso zenbaki guztietako artikulua mamitsuena dugun «Itzulpena eta traizioaren praktika»-n. Artikulua Pottugaletetik ezizenarekin sinaturik badago ere, Atxagarena dela ziurta dezakegu (Sarasola, 2015). Gai konplexu askoak jorratu zituen testuan –batez ere kontuan izanik ordura arteko euskal esparruko literatur teoria urria–, eta esan daiteke literatura konparatuaren estreinako aldarri argia dugula. Izan ere, itzulpengintza ikasketak literatura konparatuaren sailtzat hartzen dituzte zenbait autorek (Gramuglio, 2006), nahiz eta historikoki bi esparruen arteko harremanak ez diren beti errazak izan (Carbonell, 1998, 143). Hain justu, Atxagaren testu hori adibide egokia da bi diziplinen arteko loturaz jabetzeko.

Itzulpengintzaren teoriaren ikuspegitik, lanaren garrantzia Aiora Jaka-k aztertu du *Itzulpenari buruzko gogoeta eta itzulpen-praktika Joseba Sarrionan-*

²¹ Baita poeta parnasianoetan ere, beren *art pour l'art*-arekin.

*diaren lanean izeneko tesian*²². Jakak postmodernotzat definitzen duen itzul-pengintza teoriaren baitan kokatzen ditu Sarrionandiaren ideiak zein artikulu horretan argudiaturikoak. Literatura konparatuari dagokionez, interesgarriena «literatura nazional» kontzeptuari artikuluak egiten dion kritika da, eta baita nola ezaugarritzen dituen halaber literatura ezberdinen arteko transferentziak (eta hor sartzan dira itzulpenak).

Artikuluaren oinarrian, bada, literatura ikuspegi nazional itxitik begiratzeari egindako kritika gogorra dago, zeinak, ikusi dugun bezala, bete-betean egiten duen bat literatura konparatuaren ideia oinarritzekoetako batekin. Literatura eta hizkuntza ezberdinen arteko hartu-emanak etengabeak direla eta, ez da zuzena espazio geografiko zehatz bateko produkzio literarioa hortik kanpoko obrekiko erabat aparte aztertzea. Juan Goytisoloren hitz batzuk hartu zituen Atxagak oinarri ideia hori indartzeko.

Un análisis, incluso superficial, de la historia literaria nos muestra sin lugar a dudas que el impulso motor de su evolución lo constituye ante todo la interacción e influencia de unas obras sobre otras. Sería ocioso recordar que toda creación artística se produce en un ámbito cultural ya atestado de obras cuya existencia reitera, modifica o niega... (Atxaga, 1978b-k aipatua)

Azken batean, «nazio bat-hizkuntza bat-literatura bat» eredu kritikatzen du, zeina oraindik ere eredu oso indartsua den ikasketa literarioen eremuan. Joseba Gabilondok (2016, 49) dio ikuspegi nazionalista-filologiko hori, «esklusibitate linguistikoan» (linguistic exclusivity) oinarritzen dena, Iberiar penintsulako orain arteko literaturaren historia guztietan presente dagoela. Hark proposatzen duen historia hain justu eredu horretatik aldentzen ahalegintzen da, hurbilpen «subalterno-postnazional-diferentzial» (55) bat proposatuz. Zentzu horretan, Atxagaren kritika hori aski goiztiarra dela esan dezakegu, eta gaurkotasunik ez duela galdu: «Hona hemen funtsean dagoen argudio ezkutua: herri batek hizkuntza propio eta berezi bat behar du, nazio bezala existitu nahi badu behintzat, eta hizkuntz bizitasunaren garantiatzat literatura bernakulo bat ere. Honelako literatura batean, sobe-

²² Jakak ez du zehazten Atxagarena dela artikulua, eta taldeko sei kideei egotzen die egileta.

raz daude itzulpenak» (Atxaga, 1978b). Eredu horren gabeziak euskal literaturaren historiari berari erreparatuz ikusten ahal zirela azpimarratzen zuen artikuluak, testu kanoniko ugarik beste literatur tradizioetako testu eta autoreekin harreman handia zutelako.

Julio de Urquijok «Gero» eta Fray Luis de Granadaren «Guía de Pecadores»-en arteko kointzidentzia harrigarriak seinatu zituen, Tartasen «Onsa Hilceco Vidia» XVgn mendeko best-seller baten bertsi berankor bat besterik ez zen izan... eta halako zerbait gertatzen da paraliteraturaren alorrean: Zuberoko pastoralen gaiak (Aymonen lau semeak, Roberto Deabrua, Karloman eta Hamabi Pareak, etab.), Katamiako Santa Agedak eta Brabanteko Genobebak Europako herri literaturaren altxor komunean parte importante bat osatzen dute. (Atxaga, 1978b)

Hori literatur tradizio guztiarekin gertatzen dela gaineratzen zuen, tradizio guztiak elkarloturik zeudela Europaren baitan behinik behin. Ideia horren giblean testuartekotasunaren kontzeptua dukegu, nahiz eta Atxagak ez duen esplizituki aipatzen. Julia Kristeva-k proposatu zuen terminoa 1966an, eta filologiako «eragin» kontzeptu klasikoarekin bereizi. Haren arabera, testu guztiak testu sare edo mosaiko handi baten parte gisa ulertu behar dira: «Tout texte se construit comme mosaïque de citations, tout texte est absorption et transformation d'un autre texte. A la place de la notion d'intersubjectivité s'installe celle d'intertextualité, et le langage poétique se lit, au moins, comme double» (Kristeva, 1969, 146). Zentzu horretan, literatura konparatuaren ikuspegia, bereziki haren garapenaz gero, testuartea kontzeptuarekin bat dator, eta horregatik garatu dute kontzeptua urteen poderioz hainbat konparatista eta kritikok²³. Jakina, neurri batean, testuartea (edo hobeki, «eragina») Mendebaldeko tradizioan antzinatetik azaltzen zaigu, baina Kristeva eta beste zenbait teorikok ez dute berau baliabide erretoriko edo testual huts gisa ulertzen. Testuartearen kontzepzio horrek literaturaren izaeraren muinari eragiten dio, literatura ulertzeko eta definitzeko beste modu bat ekartzen baitu harreraren ikuspegia txertatuz (hortik «era-

²³ Hala nola Claudio Guillén, Ulrich Weisstein, Michael Riffaterre, Gerard Genette eta Harold Bloomek.

gin» kontzeptu klasikoarekiko distantzia). Zentzu horretan, literatura testu-arte-kotasunetik ulertzea literatura konparatuaren ideian bete-betean txertatzen da.

La intertextualidad es tanto el nombre para referirse a la relación de una obra con determinados textos previos, como la afirmación de que leer una obra es ubicarla en un espacio discursivo en el que se relaciona con varios códigos formados por un diálogo entre textos y lectura. El estudio de las fuentes y la influencia, tal y como tradicionalmente fue concebido bajo cierta presión teórica, ha sido reconsiderado como el estudio de la intertextualidad y amplía su ámbito para incluir las anónimas prácticas discursivas de una cultura, que permiten a una obra producir efectos de significación. (...)

La teoría de la naturaleza diacrítica del significado y la noción de intertextualidad nos permite decir, transformando el famoso título, que *raison, c'est comparaison*, o por lo menos que *raisonner, c'est comparer. Littérature comparée*, literatura comparada, se convierte en el término apropiado para el estudio de la literatura (leer un texto frente a otro, leer un texto como una relectura de otro, leer un texto en el espacio intertextual de una cultura). (Culler 1998, 114-116)

Atxagak ere tradizioaren ideia testu mosaiko (Kristeva), sare, edo bere hitza erabiltzearen, «kate» modu horretan ulertzen zuen. «Tradizioa textuinguru historiko bat dugu, hau da, texto kate bat zeinean texto bakoitzak aurrekoa itzultzen eta traizionatzen du, zeren, nahiz eta texto orijinalaren mamari irauterazi nahi izan, ezin baitezake zerbait berri baten agerketa eragotz» (Atxaga, 1978b). Traizioa zentzu positibo eta sortzailean ulertu behar da kasu horretan, Atxagarentzat itzulpenaren traizio hori funtsezkoa baita zerbait berriaren agerpenerako. Hala, Jakak azaltzen duenez, adiera horretan, «traizioa, lehenik eta behin, itzulpenaren epistemologia modernoari egiten zaio, sorburu-testuaren eta itzulpenaren arteko desberdintasunak akats, imperfekzio, huts eta arazo gisa hautematen dituen diskurtso atzerakoiari» (Jaka, 2012, 223). Traizioaren ideia hori oso gertu dago 70. hamarkada hartan bertan, testu-arte-kotasunaren inguruko debatean, garrantzitsua izan zen Harold Bloom-en «irakurketa makurra» (misreading) kontzeptuarengandik. Irakurketa makurra poeta gazteago batek aurreko

poeta kanonikoari egiten diona da, zeinarengandik baliatzen den obra berritzaile bat sortzeko. Irakurketa makur hori, bada, funtsezko elementu da sormen prozesuan, eta zentzu aktiboa hartzen du, Atxagaren traizio kontzeptuak egiten duen bezalaxe itzulpenaren kasuan. Irudi luke Bloomek poesiaren esparruan kokatzen duen kontzeptuaren itzulpengintzarako moldaketa bat dela Atxagak egiten duena «traizio» terminoarekin. Edozein kasutan, garbi dago testuartekotasunaren kontzepzio sortzaile hori dagoela «Itzulpena eta traizioaren praktika» artikulua gibelean, zalantzarik gabe literatura konparatutik baino eduki ezin daitekeen kontzepzioa.

Auzi hori guztia kontuan izanik, hobeki uler liteke artikuluan bertan «literatura nazionala» kontzeptuari Atxagak egin zion kritika gogorra, garaiko haren testu gehienak bezalaxe ahoan bilorik gabe jaulkitakoa.

Ze hostiak pintatzen ditu adjetibo maradikatu hark? Ene eritziz, «nazional» kalifikatiboak ez du beste funtziorik betetzen Estatu eta herriaren arteko nahasketa, literatur mailan ere, mantentzekoa baizik. Eta, honen ondorioz, literaturgintza akademikoak deituriko nekrofago mafia horren inkisiziopean sartzekoa ere. (Atxaga, 1978b)

Kritikaren erdigunean literatura nazional kontzeptua ipintzeak jada argi eta garbi kokatzen du Atxaga tradizio konparatistaren barruan. Jonathan Culler kritiko eta konparatista handiak ere oso arazki adierazi zuen, Atxagaren testuaren argitalpena baino urtebete geroago, zertan oinarritu behar zen literatura konparatua: «Si la literatura comparada quiere abrirse camino en las universidades y en el mundo de las organizaciones profesionales, ha de iniciar un debate teórico que ponga en duda el principio según el cual las literaturas nacionales son las unidades legítimas para el estudio de la literatura» (Culler, 1998, 105). Atxagaren kasuan itzulpengintza ikasketen eta literatura konparatuaren arteko lotura ondo ikus daiteke, harentzat hain justu itzulpena delako literatura nazionalaren eredu hori zartzeko modua: «Zentzu honetan itzulpen eskubidea defendatzea «literatura nazionala» den taifa-ko erreguloen belakubideak zalantzan jartzea dateke» (Atxaga, 1978b).

Tradizio eta traizio kontzeptuen arteko hitz-jokoaren bidez ere gauza bera egiten zuen, literatura nazionala tradizio partikular eta itxi batean oinarritzen baita, kanpoko eraginetatik libre edo ia isolaturik. Itzulpenaren trai-

zioaren aldarrikapenak, bada, tradizioaren ideia hori arrakalatzen du, eta beste kontzeptio zabalago batera eraman, non tradizioa, nazionala izan beharrean, «Europako herri literaturaren altxor komuna» litzatekeen.

Ez alferrik, *Pott Tropikalako* «Haikeberkua da, benetan» artikuluan ere, ildo beretik jo zuten Potteko kideek²⁴. Lehenago Euskadi Ofizialaren bidez euskal abertzaletasuna kritikatu bezala, kasu horretan «Euskoabertzaleak» terminoa erabiltzen zuten gauza bera egiteko. Ordukoan, gainera, literatur kontuekin erabat loturik: «Joan zaitetz euskoabertzale batengana eta galde iezaiozu zer iruditzen zaion Beckett, adibidez, eta agudo erantzungo dizu: «Eskolan bere 'Rimas' liburua askotan irakurtzen nuen, bai, asko gustatzen zait»» (Pott, 1980). Kasu horretan, bidenabar, ikuspegi hispaniko itxia kritikatzeko zuten –Orixek berak ere bazuena arestian ikusi dugunez– zeina, Frankismo luzearen ondoren, nagusi zen baita euskal literaturan ere. Horren aldean, Mendebaldeko, eta bereziki, Europako literatur tradizioa aldarrikatzen zen testuan: Joyce, Hemingway, Beckett, Pound, Eliot, Gombrowicz, Camus, Proust, Pavese, Celine, Quevedo, Shakespeare, Mallea. Berriro ikusten da, Lauaxetaren kasuan bezalaxe, tradizioaren ikuspegi ezberdin baten atzean literaturaren inguruko ikuspegi osoki ezberdin bat gordetzen ahal dela. *Potten* idazle horiek guztiak aldarrikatzen dituztenean ez dute tradizioaren ikuspegia zabaltzen bakarrik, hari buruzko ikuspegi errotiko berri bat eskaintzen dute halaber, eta horrexek irekitzen die bidea literatura konparaturantz.

Egiari zor, ikuspegi hori ere zalantzan jarriko da orobat literatura konparatuaren baitan kritika postkolonialaren argitan, batez ere 70. hamarkadatik aurrera Edward Saïden lanei esker. Gaur egun, hala, literatura konparatuaren eta teoria postkolonialaren arteko harremanak oso estuak dira; hain da horrela, ezen Armando Gnisci-rentzat literatura konparatuaren erdigunean kokatzen baita kritika postkoloniala.

Si para los países que se descolonizan de Occidente la literatura comparada representa una manera de comprender, estudiar y realizar la descolonización, para todos nosotros, especialistas europeos, re-

²⁴ Horrek ere Atxagarena izateko traza guztia du, baina ziurtasunez esan ezin dezakegunez, ez dut autoretza erabat baieztatu.

presenta una forma de pensamiento, autocrítica y educación, o dicho de otro modo, la disciplina para descolonizarnos de nosotros mismos. Esto es cierto si nos consideramos verdaderamente parte de un «mundo poscolonial» donde los ex-colonizadores deben aprender a vivir como los ex colonizados, y con ellos. (Gnisci,1998, 192)

Egungo ikuspuntutik, bada, Atxaga eta Pott bandaren ideiak koska bat gehiago estutzen ahal dira, haien eurozentrismoa kritikatzuz²⁵, baina garaiko testuinguruan kokatuta, nabaria da literatura konparatutik euskal literaturari egin zioten ekarpena.

3. Ondorioak

Literatura konparatuaren agerpena euskal literaturan aski berantiarra izan dela baieztatu dezakegu. XX. mendearen hastapenetan bereziki Lauaxetaren eskutik haren zantzuren bat antzeman daitekeen arren, 70. hamarkada arte ezin esan dezakegu ikuspuntu konparatistikorik egon zenik euskal literaturan. Dударik gabe, euskararen egoera minorizatuak zein euskal literaturaren esparruaren existentzia ezak eragin berebizikoa izan zuen gertaera horretan. Horretaz gain, hala euskal kulturaren eta estetikaren tradizio aski kontserbadore eta klasizistak zein ideologia nazionalista tradizionalaren hedapenak ez zuten batere lagundu literatura konparatuaren agerpenean. Gauzak horrela, elementu horien kontrako erreakzioan suma ditzakegu literatura konparatuaren ikuspegiaren lehen agerpen argiak. Izan ere, diziplina konparatua modernitatearekin loturik agertzen zaigu nolabait, hain justu arestian aipatutako poetika klasizisten kontrastean. Testuinguru horretan, Atxagak sutsuki defendaturiko literaturaren autonomiaren aferak, esaterako, berebiziko garrantzia hartzen du, eta hura gabe nekez pentsa liteke euskal literaturaren zinezko esparru bat. Horretaz gain, baina, euskal nazionalismo tradizionalarekiko aldentzea argi eta garbi zertu zen Pott bandaren proiektuan. Atxagak Euskadi Ofizialari egindako kritika zuzenak gisa

²⁵ Egiazki, guztiarekin, Europako literatur erdiguneetatik kanpo ere jarri zuten arreta Potten. Besteak beste, Hegoameriketako literaturak, Poloniakoak eta gaelikoz idatzitako literaturak lekua izan baitzuten aldizkarian.

horretan ulertu behar ditugu, eta baita itzulpengintzaren alde egindako lana ere, maila teorikoan zein praktikoan.

Itzulpengintza eta haren inguruko teoria modernoa²⁶, testuartekotasunaren ideia proteiko horrekin, ezinbesteko elementu bilakatzen da, beraz, literatura nazionalaren ideia hertsia erroitik kritikatzeko. Kritika hori, era berean, literatura konparatuaren ideia muinean dugu, konparatismoak hain justu XIX. mendeko literatura nazionalaren ideia nazionalista tradizionala gaudituz nahi duen heinean eta literatura nazional diferenteen arteko harremanak bezala munduko literaturaren ondare komuna aintzat hartu nahi duen heinean.

Gaur egun ere, neurri batean behinik behin, literatura konparatua literatura ikasketen baitan ikuspegi bazterrekoa da. Unibertsitate ikasketei begiratzea besterik ez dugu jabetzeko oraindik ere literatura nazionalen perspektibatik diseinaturiko ikasketak ditugula. Literatura konparatuarekin erlazionatzen diren zenbait teoria berriren bidez –teoria sistemikoak, postkolonialismoa– ikuspegi hori urtetan zartatzen joan bada ere, oraindik indar handia izaten jarraitzen du. Horregatik, are garrantzi handiagoa hartzen dute euskal literaturaren baitako literatura konparatuaren ikuspegiaren lehen agerpenek. Zer esanik ez Lauaxetaren kasuan, zeina bere ikuspegi modernoa nolabait ezkutatzen ahalegindu zen, eta baita Atxagaren kasuaren ere, zeinaren 70etako ideia zenbait gaur egun ere aski ausart eta indartsuak izaten jarraitzen duten. Gerora han defendatutako puntu batzuk kritikatzeko ahal badira ere, mugarriak izan ziren euskal literaturaren teoriaren hastapenetan zein modernizazioan.

Bibliografia

ADORNO, T., 2004, *Teoría estética*. Madrid: Akal.

ALDEKOA, I., 2004, *Historia de la literatura vasca*. Donostia: Erein.

²⁶ Jakak kontzepzio horri postmoderno deitzen badio ere, nire ustez zuzenagoa da modernotzat jotzea.

APALATEGI, U., 2000, *La naissance de l'écrivain basque. L'évolution de la problématique littéraire de Bernardo Atxaga*. Paris: L'Harmattan.

APALATEGI, U., 2015, «Noiz hasten da modernitatea euskal literaturan? Galdera zahar baten aktualitatea», in *Ibon Sarasola. Gorazarre*. Bilbo: EHU, 77-95.

ARESTI, G., 1972, *Euskal Literatura 72*. Donostia: Lur.

ATXAGA, B., 1974, «Euskal Theatro Berriaren bila (I)», in *Anaitasuna*, 268.

ATXAGA, B., 1977, [Izenbururik gabe], in *Anaitasuna*, 344.

ATXAGA, B. (Pott bandako apatrida), 1978a, «Poema liburu baterako hitzaurregai bat», in *Pott*, 1.

ATXAGA, B. (Pottugalete), 1978b, «Itzulpena eta traizioaren praktika», in *Pott bandaren blaga*.

ATXAGA, B. eta IZAGIRRE, K., 1975, «Ez dezagula konposturarik gal, halere», in *Panpina ustela*.

BASSNETT, S., 1998, «Qué significa literatura comparada hoy?», in *Orientaciones en literatura comparada*. Madrid: Arco.

BLOOM, H., 1997, *The Anxiety of Influences. A Theory of Poetry*. Oxford: Oxford University Press.

CARBONELL, N. eta VEGA, M.J., 1998, *La Literatura Comparada: principios y métodos*. Madrid: Gredos.

CARROL, L., 1979, *Alizia herrialde harrigarrian*. Donostia: Lur.

CULLER, J., 1998, «Literatura comparada y teoría de la literatura», in *Orientaciones en literatura comparada*. Madrid: Arco.

CASTELAO, A., 1976, *Kristalezko begia: eskeleto baten oroimenak*. Donostia: Kriselu.

ECKERMANN, J.P., 2005, *Conversaciones con Goethe*. Barcelona: Acanalado.

GABILONDO, J., 2016, *Before Babel: A History of Basque Literatures*. USA: Barba-roak.

GRAMUGLIO, M.T., 2006, «Tres problemas para el comparatismo», *Orbis Tertius*, [04/08/2010], <<http://www.orbistertius.unlp.edu.ar/numeros/numero-12/2-gramuglio.pdf>>

GNISCI, A., 1998, «La literatura comparada como disciplina de desconolización», in *La Literatura Comparada: principios y métodos*. Madrid: Gredos.

GUILLÉN, C., 2005, *Entre lo uno y lo diverso. Introducción a la Literatura Comparada (ayer y hoy)*. Barcelona: Tusquets.

HIKMET, N., *Lau gartzelak*. Donostia: Lur.

HUXLEY, A., *Bai mundu berria*. Donostia: Lur.

IZTUETA, P., 2002, *Kritika literarioaren lehen saioak (1926-36)*. Donostia: Utriusque Vasconiae.

IZTUETA, P., 2002 b, *Testu hautatuak euskal estetikaz*. Donostia: Utriusque Vasconiae.

JAKA, A., 2012, *Itzulpenari buruzko gogoeta eta itzulpen-praktika Joseba Sarrionandiaren lanean*. Bilbo: Euskaltzaindia.

KAFKA, F., 1970, *Itxuraldaketa*. Bilbo: Kriselu.

KORTAZAR, J., 1986, *Teoría y práctica poética de Lauaxeta*. Bilbo: Editorial Desclee de Brouwer.

KRISTEVA, J., 1969, «Bakthine, le mot, le dialogue et le roman» in *Critique*, 239, 438-465.

LAUAXETA, 1982, *Azalpenak 1931-1935*. Bilbo: Labayru.

LLOVET, J. et alii, 2005, *Teoría literaria y literatura comparada*. Barcelona: Ariel.

LONDON, J., 1979, *Oihanaren deia*. Donostia: Lur.

LOPEZ GASENI, M., 2002, *Historia de la literatura vasca*. Madrid: Acento.

MARTÍ, A., 2005, «Literatura comparada», in *Teoría literaria y literatura comparada*. Barcelona: Ariel.

NOVALIS, 1987, in *Fragmentos para una teoría romántica del arte*. Madrid: Tecnos.

NOVALIS, 1998, *Fragments. A cura de Robert Caner-Liese*. Barcelona: Quaderns Crema.

OLAZIREGI, M.J. (ed.), 2012, *Basque literary history*. Nevada: Center for Basque Studies.

ORIXE, 1991., *Idazlan guztiak. III, Artikulu eta saiakerak*. Donostia: Etor.

- OTAEGI, L., 1996, «Aitzol eta Euskalzaleak» in *Euskera* 41, 499-507.
- POE, E.A. *et alli*, 2010, *Matemática niebla. Genealogía de la poesía moderna*. Barcelona: Círculo de Lectores.
- POTT, 1980, «Haikeberkua da, benetan» in *Pott Tropikala*. Andoain: Pott.
- PROUST, M., 1987, *Contre Sainte-Beauve*. Paris: Gallimard.
- PULIDO TIRADO, G., 2001, «Introducción: la literatura comparada en España», in *La literatura comparada: fundamentación teórica y aplicaciones*. Jaén: Universidad de Jaén, 11-29.
- REMAK, H., 1998, «La literatura comparada: definición y función», in *La literatura comparada: Principios y métodos*. Madrid: Gredos.
- SAID, E., 1994, *Culture and Imperialism*. New York: Vintage.
- SARASOLA, B., 2015, *Bainaren belaunaldia*. Bilbo: Labayru
- SARASOLA, I., 1971, *Euskal literaturaren historia*. Donostia: 1971.
- SARASOLA, I., 1975, *Txillardegi eta Saizarbitoriaren Nobelagintza (irakurlearentzat gidaria)*. Donostia: Lur.
- TORREALDAI, J.M., 1997, *Euskal kultura gaur, liburuaren mundua*. Donostia: Jakin
- TOTOSY DE ZEPETNEK, S., 1999, «From Comparative Literature Today Toward Comparative Cultural Studies» in *Comparative Literature and Culture*, 1. 3.
- TWAIN, M., 1979, *Tom Sawyerren abenturak*. Donostia: Lur.
- URQUIZU, P. (Dir.), 2000, *Historia de la literatura vasca*. Madrid: UNED.
- VEGA, M.J. eta Carbonell, N., 1998, *La literatura comparada: Principios y métodos*. Madrid: Gredos.
- VOLTAIRE, 1972, *Kandido*. Donostia: Lur.
- WELLEK, R. eta WARREN, A., 1963, *Theory of Literature*. London: Penguin Books.